

Liburuak

KRITIKA

Zoritxarreko biografia

Helduen literatura

Saioa Ruiz Gonzalez

PHILIP ROTHEN azken eleberriak jaso dituen iruzkinek ustekabeen harrapatu naute. Egia da pertsona bezain-beste gustu dagoela, batez ere liburuez, irakurleez eta irakurketa mailez ari garenean. Zentzu horretan, iritzi-aniztasunak ez ninduke zertan harritu baina, Rothek *Nemesis* eleberrian kontatzen duena transzendentziarik gabekoa dela dioten kritikak lekuz kanpo daudela iruditzen zait. Are gehiago, aurreko lanetako Roth “berdinaren” aztarna ageri ez dela bezalako argudio, ene iritzi, pisu gabekoetan oinarritzen direnean.

Ez daukat idazle estatubatuar honen defendatzaile sutsuaren itxura emateko intentziorik, erabat profanoa naiz bere obraren gainean. Hala eta guztiz ere, ez dut uste Beñat Sarasolak eleberri ezdeus bat itzultzeko asmoa zuenik; Bucky Cantor izeneko gazte baten istorioa euskaratua izatetik harago, konturatzen gara Rothen prosak badaukala zer esanik.

1944ko udan, AEBetako indarrak Pazifikoko borrokatzen ari ziren garaian, eta gazteen zintzotasuna Bigarren Mundu gerran parte hartzeko gaitasunen arabera neurtzen zeneko momentu berean, polio



Nemesis.
Philip Roth.
(Itzultzailea: Beñat Sarasola).
Meettok.
234 orrialde.
18,50 euro.

epidemia batek hamabi urte inguruko haurren aurkako gerra piztu du. Newarkeko auzo juduak jasaten dituen bizi galerek panikoa zabaldu dute, eta desesperazioak bultzatuko du komunitatea errudun bat bilatzera. Bucky Cantorren bizitza ez da erraza izan; ama galdu zuen jaiotzean, kartzelan preso egondako lapurra zuen aita, eta harengandik jasotako ikusmen arazoek, armadan parte hartzeko gazte ezgaituen zerrendan gelditzea kondenatu zuten. Aitonari esker, barneratu zuen bizitzari aurre egiteko ikuspegi heroikoa: “prezio bat pagatu behar duzunean, pagatzea” (29. orrialdean) baina, nola egin jaiotzeko momentu beretik markatua izan zarenean? Nola gaingitu, kanpotik geureganatzen dugun Ni-aren konstrukzio idealari, “behar bezala” erantzun ezin izanak, eragiten duen porrot sentimenduaren oinazea? Gure printzipio moralek azal dezakete gertatzen den ororen zergatia? Non hasten da eta non bukatzen gertaeren gaineko giza-erantzukizuna?

Rothek ez du erantzunik ematen, inork ez baitu bizitzaren eremu zentzugabekoari aurre egiteko errezetarik. Nahikoa du, giza adimenaz azaldu ezin denaren inguruko galderak formulatzearekin. Bucky Cantorren istorioak bizitzaren alderdi ilun, irrazional eta gupidagabekoe-na islatzen du; “zergatik polio epidemia? Zergatik hil da? Non dago justizia? Zergatik tragediak gutxien meretz duen jendea du eraisten?” (46. orrialdean). Erantzun zein erantzulerik gabeko kaosaren aurrean pertsonaiak errudun baten irudia bilatuko du, halabehararen tirania hutsak ez du asetzen, eta aitonaarengandik jasotakoari jarraiki, berak ere, dagokion prezioa ordaindu beharko du.

Intranszendentea? Ez, zori hotz eta kaotiko hutsa erantzule duen mundu baten emaitza. ■



TALLERES MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com